

Bezeroekiko Harremanak

Gure aplikazioaren **balorazioa** egin ahal izateko, aukeratu ditugun plataformetan iritzia eman ahal izango dute. Horrela beste erabiltzaileen iritzia ikustean, aplikazioa deskargatuko dute. Balorazio onak lortuta, **bezero gehiago** izango ditugu eta salmentak areagotu egingo dira.

Horrez gain **zerbitzu propioa** izango dugu, gurekin kontaktuan jartzeko, horrela, **arazoren** bat egonez gero gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute bezeroek. **Abantail handia** da zerbitzu propioa edukitzea bai guretzat, bai KIHMSen erabiltzaileentzat. Horrela aplikazioaren arazoak azkar konponduko ditugu, eta erabiltzaileek pozik egongo dira.



Baita ere izango ditugu sare sozial ezberdinetan **kontuak** (*Twitter eta Instagram adibidez*), horrela beste sare sozialetako erabiltzailei interesatzen bazaie eskaintzen dugun zerbitzua ezagutuko gaituzte eta **deskargatuko** dute aplikazioa. Hori **bezeroak erakartzeko** bidea izan daiteke.

Bezeroekin hitz egiteko **interneten** bidez egingo dugu beti, aplikazioan gurekin zuzenean jartzeko email bat dagoelako jarrita. Gurekin kontaktuan ipintzean **laguntza pertsonala** eskainiko diogu bezero bakoitzari, bere galderak erantzuteko.

Lagunak lortzeko edo beraiekin geratzeko aplikazioaren funtzionamendua honakoa izango da: Aplikazioaren atal bat *chat* moduko bat egongo da, non jendearekin komunikatuko zaren arazorik gabe. Honetan ere, zure profilaren antzeko jendearen profila agertuko zaizu, bera ezagutzeko eta berarekin mintzatzeko.

